

EUSKAL HERRIKO ITSASBAZTERRA



ARIKETAK


AURKIBIDEA

1. KLIMA	5
2. PAISAIK	11
3. JENDEEN JARDUERAK	20
LEXIKOA	31

EUSKAL HERRIKO ITSASBAZTERRA

1. KLIMA

a) Euskal Herria koka ezazu planisferio honetan.





b) Ekuatoreak Lurra bi hemisferiotan banatzen du: Ipar hemisferioa eta Hego hemisferioa. Ekuatorea gorriz adierazi eta, hemisferioak izenda itzazu.

c) Zein hemisferiotan kokatua da Euskal Herria?

d) Zein ozeanoren bazterrean kokatua da Euskal Herria?

e) Marrazkiei ongi begira.




1. Lanpak gunee bat argitzen du.

2. Lanpak gunee ttipiago bat argitzen du.

- Termometroari begira. Zer gertatzen da lanpa berarekin gune ttipiago bat argitzen delarik?

.....

.....



- Hiru eguzki izpi hauek berdina dira. Hiru tokietan tenperatura bera izanen dea? Zergatik?

.....

.....

f) Hastapeneko planisferioan gune beroena horiz margo ezazu, eta gune hotzenak urdinez.


g) Zer gunetan kokatua da Euskal Herria?

.....

h) Zokoa Euskal Herriko herri bat da, Clermont-Ferrand Auverniako hiri bat. Mapan koka itzazu.




i) Grafiko hauetan hilabete bakoitzeko tenperatura gorenak eta apalenak agertzen dira



- Zer izan zen 2009ko tenperatura gorena Zokoan? Zein hilabetetan zen?

- Zer izan zen 2009ko tenperatura apalena Zokoan? Zein hilabetetan zen?



- Zer izan zen 2009ko tenperatura gorena Clermont-Ferranden? Zein hilabetetan zen?

- Zer izan zen 2009ko tenperatura apalena Clermont-Ferranden? Zein hilabetetan zen?

j) Zenbat aldiz ageri dira 25 °Cz goitiko tenperaturak?

- Zokoan:

- Clermont-Ferranden:

k) Zenbat aldiz ageri dira 0 °Cz beheiko tenperaturak?

- Zokoan:

- Clermont-Ferranden:


l) Oro har, non da klimarik beroena?

.....

m) Oro har, non da klimarik hotzena?

.....

n) Plubiometria, toki batean egiten duen euri, elur eta harri kantitatea da. Milimetrotan (mm) neurtzen da.




- Taula osa ezazu:

Zokoako plubiometria 2009an	
Clermont-Ferrandeko plubiometria 2009an	
Bien arteko diferentzia	


- Zer erran dezakezu bi herri horietako plubiometriaz?

- Mapari begiratzuz, zergatik dira, zure ustez, tenperatura eta plubiometria ezberdinak?

o) Grafiko hauetan Bizkaiko golkoko uraren tenperatura eta orain arte ikusi ditugun bi herrietakoak agertzen dira.



Iturria: Météociel



Iturria: Météociel

Kurbei begiratzuz erantzun xuxenak hauta:

- *Zokoako tenperatura itsasoko tenperaturari hurbil zaio.*
- *Clermont-Ferrandeko tenperatura itsasoko tenperaturari hurbil zaio.*
- *Itsasoari esker, Zokoan neguak eta udazkenak epelak eta euritsuak dira.*
- *Itsasoari esker, Clermont-Ferranden neguak eta udazkenak epelak eta euritsuak dira.*
- *Ondorioz, Zokoako klima ozeanikoa dela erraten da.*
- *Ondorioz, Clermont-Ferrandeko klima ozeanikoa dela erraten da.*

2. PAISAIK

Satelite bidezko bi irudi hauei begira.



a) Zer erakusten du gezi zuriak?

.....

b) Gauza bera ikusten dea Aturriren iparraldean eta hegoaldean?

.....


c) Ondorioz zer erran dezakezu Euskal Herriko itsasbazterraz Landesetakoarekin erkatuz?

.....

d) Euskal Herriko eta Landesetako itsasbazterrak kalko paperean marraz eta erka itzazu.



World Wind



World Wind

- Zer erran dezakezu?

.....

e) Argazki hauetan Hendaia eta Donostiaren arteko erlaitza agertzen da:



- Ikusten duzuna deskriba ezazu.

.....

.....

.....

.....

.....


- Zure ustez zerk eragin ditu deformazio horiek?

.....

f) Duela 40 milioi urte inguru, Iberiar penintsula Iparraldera buruz mugitzen ari zela, egungo Frantziaren hegoaldearekin talka egin zuen.



g) Marrazki honi, eta aitzineko orrialdeko argazkiei eta marrazkiei begiratuz, zer erran zenezake harrien deformazioaz?



h) Eman dezagun ezkerreko autoa iberiar penintsula dela eta eskuinekoa Frantzia, zer da bien arteko kapot plegatua?

i) Eskuineko orrialdean itsas ezponden eraketaren urratsak ageri dira. Irudiak motz eta orrialde zuri batean ordenan ezar itzazu. Ondotik, erranaldi bakoitza irudi egokiaren azpian idatz ezazu.


1- Jalkiera: uretan zintzilik diren ekaiak eta kostatik lerratu uhertasun-korronteak (1) aldizka itsas hondoan metatzen dira. Aldizkako jalkiera horrek sortu geruzen segida *flysch* deitzen da.

2- Jalkiera: uraren presioa eta gaineko geruzen pisua direla medio, geruzak gogortzen dira, harri bilakatuz.

3- Deformazioa: plaka tektonikaren ondorioz, konpresiozko mugimendu bat sortzen da, geruza horizontalak deformatuz.

4- Deformazioa: plaka mugimenduek segitzen duteno, deformatzeak azkartzen dira. Geruzen malda biziki ezberdina izan daiteke tokiaren arabera.

5- Higadura: euriak, haizeak, ur-ibilgueak eta itsasoak higadura diferentziala eragiten dute, hots, harriak beren samurtasunaren arabera ezberdinki desegiten dituzte.



j) Horra itsasbazterreko flysch baten argazkia.



© CPIE itsasbazterra

- Zenbat harri mota dira zure ustez? (koloreek lagun zaitzakete)

.....



© CPIE itsasbazterra

- Argazki honetan gauza bera dea? Zer gertatu da zure ustez?

.....

.....

- Zergatik dira geruza ilunak desagertu?

.....

- Zure hipotesiaren frogatzeko esperientzia bat proposa ezazu.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....




© CPIE itsasbazterra



© CPIE itsasbazterra

k) Bi argazki hauek Lohiako badian hartuak izan dira. Zer gertatu da geziak erakusten duen lekuan? Zerk du hori eragin?

- I) Hona itsasbazzterren higaduraren urratsak.
 Zein urratsetan da Euskal Herriko itsasbazzterra?
 Zein urratsetan da Landesetako itsasbazzterra?



.....






.....

.....

.....

3. JENDEEN JARDUERAK

a) Irudi hauek multzoka itzazu. Esplika zeren arabera multzokatu dituzun.



b) Definizio bakoitzari doakion irudiaren zenbakia emaitu:

- **Sare zuzenak** flotagailu eta lastekin urean ezartzen dira eta finkoak izan daitezke edo jitoan utziak. Barnatasuna eta mailen tartea arrantzu nahi den espeziearen eta legediaren arabekoak dira:
- **Ingurasareak**, izenak dioten bezala, arrain sarden inguratze baliatzen dira. Inguratua delarik, sarearen azpiko partetik pasatzen den kable bat tiratuz sarea hetsi eta poltsa bat osatzen da. Printzipio bera erabiltzen duen sare tipiko bat **bolintxa** deitzen da eta sardinen eta antxoaren harrapatze baliatzen da:
- **Arraste-sareak** ontziak herrestan eramaten dituen funil formako sareak dira. Sarearen barnatasuna arrantzu nahi diren arrain espezieen arabekoa da. Ontzi batek edo bik batean tira ditzakete:
- **Otarreak edo nasak** beita batekin urperatzen dira. Sistema horiekin, krustazeoak eta moluskuak harrapatzen dira gehienik:
- **Tretza** hainbat potxera (hari mehe) duen hari luzea da. Potxera bakoitzak amu bat du. Tretzak hondoa edo azalari hurbilago ezartzen dira, arrantzu nahi denaren arabera:
- **Kazako arrantza** amuak baliatzen dituen arrantza teknika zaharrenetarik da. Ontziak hari bat baino gehiago tiratzen du, arrainek amuari ausiki arte:

c) Arrantzuak diren espezie batzuen ilustratzeko argazki edo marrazki bat atzemazu (Interneten, adibidez):

- Hegalaburra (atuna):
- Antxoa:
- Legatza:
- Berdela (edo makarela):
- Txipiroia:

Itsas baliabideen gehiegizko ustiapena

Arrantza teknika berrien bidez arrain gehiago hartzen da, baina gero eta arrain txikiagoak eta gazteagoak. Gainera, biziki metodo bortitzak erabiltzen dira, bereziki arraste sareekin arrantzatzen delarik, geldialdi biologikoa batere kontuan hartu gabe. Ondorioz, arrainen ziklo biologikoa ez da berritzen eta gero eta arrain gutiago bada. Arrantza-kuotak ezartzen dira baina ez dira beti errespetatzen.

Ontzi anitz ur gaineko lantegi bilakatu dira: arraina harrapatu, prestatu, paketatu eta hormatzen dute. Ontzi horiek gero eta urrunago eta barnago arrantzatzen dute, espezie anitz harrapatuz eta ekosistemak suntsituz (bereziki arraste-sareengatik).

Bigarren mailako harrapaketak ere anitz emendatu dira: 20 bat milioi tona arrain (arrantzatua denaren laurdena) hilik botatzen dira urera, saltzen ahal diren espezieetakoak ez direlako. Izurdeak, dortokak eta itsas txoriak ere sareetan lotuz edo beita janzten dira. Gainera, arrain kopurua txipitzen baita, arrain horiek jaten dituzten animaliek ez dute jatekorik atzematen.

- Zer erran daiteke arrain kopuruaz?

.....

- Arrantza teknika guziek eragin bera ote dute?

.....

- Aitzineko orrialdeetan aurki ezazu eragin gehien duen arrantza teknika.

.....

- Zer gertatzen zaie izurdeei, dortokei eta itsas txoriei?

.....

- Zein izan daitezke arazo horien gainditzeko neurriak?

.....

.....

.....



© Jose Arocena

d) Zer darama itsasontzi honek?

.....

- Helbide elektroniko honetako bideoari begira eta esplika ezazu zertako baliatzen duten.

https://www.youtube.com/watch?v=mZSFk_Vp0EM



© CPIE itsasbazterra



© CPIE itsasbazterra

e) Ezkerreko argazkian, zergatik dute zuhaitzek itxura hori?

.....

f) Ondorioz, zer erran zenezake eskuineko argazkian ageri den oihanaren itxuraz?

.....

g) Bi argazkietan haizea nondik heldu den adieraz ezazu, gezi bat marraztuz.



© CPIE itsasbazterra

h) Argazkiko iratzea arrunt zimeldua da. Zergatik ote?

- euri eskasarengatik
- itsasoko ur gaziarengatik
- suarengatik

i) Aitzineko galdeen ihardespenak kontuan hartuz, zer erran dezakezu itsasbazterreko landareen bizi baldintzez?

.....

.....



j) Hitz bakoitza bere tokian idatz ezazu.

- Itsasoa
- Pinudia (itsas pinuak)
- Hosto erorkorrezko oihanttoa (haritz kandudunak, ametzak, lizarrak, hurritzak...)
- Landa (berroa, ote zuria, iratze arrunta, elorri zuria...)
- Pentzea (lihoa, hirusta gorria, arrauka, orkideak...)
- Zure ustez, animalia espezie berak bizi ote dira bost ingurumen horietan?

- Zer gertatuko litzateke argazkian ageri den paisaia urte batzuez bere gisara uzten balitz?



- Zer da, beraz, abere hauen rola?



k) Itsasbazterrean den landare hau
basalandarea da? Zergatik?

- Zer landare mota da?

- Zer egin daiteke landare horren fruituez?

© CPIE itsasbazterra

FRUITU ZAHARRAK ABBADIAN

Abbadian, hektarea bateko eremu batean, aspaldiko fruitu zuhaitz motak landatuak dira 1988az geroztik. Fruitu mota anitz desagertzetik begiratzeko, zuhaitzen landatzea erabaki zuten.

Horra zer landatu zuten:

- ehun bat sagar mota
- berrogeita hamar bat gerezi mota
- hamasei haran mota
- sei udare mota
- lau mizpira mota
- hiru arbeletzeko mota
- hirurogei mahats mota


Jendeak Euskal Herriko aspaldiko fruitu moten ezagutzen ikas dezake. Zuhaitzen inausketaren eta txertatzearen teknikak ere ikasten ahal dira. Sagardiko fruituez sagar zukua eta sagarinoa egiten dute.

- Titulua esplika ezazu.

- Zenbat fruitu mota dira Abbadian orotara?

- Sagarrak zertako baliatzen dira?

l) Mapa horretan, hiri-ingurunearen hedapena beltzez adierazia da (bizileku, industriagune...).



- Baiona, Biarritz, Donibane Lohizune eta Hendaia koka itzazu.

- Zer erran dezakezu hiri-inguruneak itsasbazterrean hartzen duen tokiaz?

- Zer erran, beraz, laborantzari eta ingurune naturalari uzten zaien tokiaz?

m) Hona 2008ko datu batzuk, Lapurdi itsasbazterreko herri batzuetako bizitegiez.

	Bizitegi kopurua	Bigarren bizitegi kopurua
Bidarte	5 252	2 507
Getaria	1 178	548
Donibane Lohizune	12 726	5 579
Ziburu	5 745	2 381
Biarritz	24 027	9 409
Urruña	4 423	943
Hendaia	11 313	4 332
Angelu	21 972	2 939
OROTARA		

INSEE 2008


- Zer da *bigarren bizitegia*?

- Taularen azken lerroa osa ezazu.

- Zer diozu zenbaki horietaz?

n) Hiztegian xerka ezazu *garraiobide* hitzaren erran-nahia.

- Zein garraiobide dira zure herrian?



- Zer adierazten du  ikurrak?

- Zein dira Euskal Herrira etortzeko garraiobide nagusiak?

- Norabide bakoitzeko, zer garraiobide den zehatz ezazu.

Iparraldetik:

Hegoaldetik:

Ekialdetik:

Mendebaldetik:

- Hori ikusirik, zure ustez aise dea Euskal Herrira etortzea? Zer ondorio du horrek turismoan?

o) Biarritzen 76 hotel badira, eta 25 300 biztanle inguru. Pauen 42 hotel badira eta 78 500 biztanle inguru. (2012ko datuak)

- Zein hiritan da biztanle gehien?

.....

- Zein hiritan da hotel gehien?

.....


- Zergatik (nork du hoteletan lo egiten)?

.....

- Zerk erakartzen du jendea Lapurdiko itsasbazterrera Pauera baino gehiago?

.....

p) Marrazki honetan, turistendako behar diren egiturak marraz itzazu (bide, hotel, kanpin, ostatu, aisialdi, segurtasun...).



q) Hitz hauek koka itzazu:

itsas ezponda, merkataritza portua, uhartea, arrantza ontzia, laket-portua, hondartza, bokalea, badia, itsasadarra



LEXIKOA

Aborin: turlutte
Ahien: liane
Antxoa: anchois
Aparailu: engin/matériel de pêche
Arol: poreux
Arraseko (landaredia): rase (végétation)
Arraste sare: chalut
Arrokatsu: rocheux
Atxapar: chèvrefeuille (Lonicera)
Badia: baie
Basamahatsondo: vigne sauvage (*Vitis vinifera* subsp. *sylvestris*)
Beita: appât
Beltxale: troène (*Ligustrum*)
Benarriz nabar: locustelle tâchetée (*Locustella naevia*)
Beraztasuna: tendresse
Berro: broussaille
Dunbarriak: Hendaia-ko arroak, frantsesez les jumeaux deituak
Elorri zuri: aubépine (*Crataegus*)
Endalar: salsepareille (*Smilax*)
Erregarri: brûlant
Faila: faille
Geruza: couche
Golkoko itsaslasterra: Gulf Stream
Hartxingadi: éboulis
Hegalabur: thon rouge
Hegaluze: germon
Higadura: érosion
Ingurasare: senne
Iratze arrunt: fougère aigle
Itsas ezponda: falaise
Itsas zainbelar: plantain maritime (*Plantago maritima*)
Jalkiera: sédimentation
Jitoan: à la dérive
Kala: crique
Kareharri: calcaire
Kazako arrantza: pêche à la traine
Lasta: lest
Legatz: merlu
Lurzoru: sol
Ote zuri: ajonc d'Europe (*Ulex europaeus*)
Pitxartxar kaskabeltz: traquet pâtre (*Saxicola rubicola*)
Pitzadura: xssure
Plaka tektonika: tectonique des plaques
Potxera: ligne secondaire
Sarda: banc de poisson
Sare zuzen: xlet droit
Sahats ilun: saule roux (*Salix atrocinerea*)

Sei puntuko zigen: zygène de la ×lipendule (Zygaena ×lipendula)

Soropil aerohalino: pelouse aérohaline

Tretza: palangre

Tuparri: marne

Txilar burusoil: bruyère vagabonde (Erica vagans)

Txipiroi: calamar

Txorbeltz: nerprun alaterne (Rhamnus alaternus)

Uharri: galet

Uhertasun-korronteak: courants de turbidité

Ur-bide: cours d'eau

Zuhandor gorri: cornouiller sanguin (Cornus sanguinea)